



Gipuzkoako Foru Aldundia

---

**al** Adimen Lehiakorra

Alerta goiztiarrak

**ONURAK    ETA  
EZARPENA**

# 1. Sarrera

Alerta goiztiarrek oraindik azalerrate fasean dagoen informazioa jasotzen dute. Horrelako informazioak aukera ematen du gai estrategikoetan erabakiak behar bezain garaiz hartzeko.



## 1. irudia: alerta goiztiarrak

1. irudian 3 ardatz dituen sistema grafiko bat ikusten da:

- **Konplexutasuna:** ardatz honek esaten digu alerta goiztiarretan aztertzen diren informazio iturrien konplexutasuna handiagoa dela beste faseetan erabiltzen direnena baino. Adibidez, aztertzen diren informazio iturrien edukiak gaur egungo egoera deskribatu dezake, edo, are gehiago, teknologia berriei buruzko lehen ideiak edo kontzeptu batzuk. Informazio multzo honetan sartuko lirateke datu base zientifikoak, patenteak...

Informazio iturri horiek aztertzeko eta ondorioak ateratzeko ahalegin handiagoa egin behar da, hizkuntza akademikoagoa edo zientifikoagoa delako.

- **Diferentziazioa:** horrelako informazioak aukera ematen dio enpresari lehiakideengandik gehiago diferentziatzeko. Informazioa oraindik azalerrate edo ernamuintze fasean dagoenez, hau da, oraindik produktu edo zerbitzu moduan gauzatzeko fasean

dagoenez, enpresak bere produktuak edo zerbitzuak asmatu eta sortu ditzake.

Berritzeko aukera ematen du, merkatuan lidergo posizioa lortzeko, soluzio berrien sortzaile gisa.


- **Atzerapena:** aurreko puntuari lotuta, alerta goiztiar hauekin lortzen den informazioaren atzerapena oso txikia da.

Adibidez, alerta goiztiarren multzoan ez dagoen informazio bat izango litzateke feria batean enpresa bat ikustea bere lehiakide baten nobedade baten aurrean. Aitzitik, alerta goiztiarraren kontzeptua aplikatuz gero, gerta liteke enpresa horrek berak artikulu zientifikoak edo patenteak askoz lehenago irakurrita edukitzea (are 18 hilabete lehenago ere) eta, horrenbestez, produktu edo teknologi estrategia efizienteagoa garatu lezake, eta merkatuari lehenago erantzun.

Alerta goiztiarren zaintza sistema bat ezartzearen alde egiten duten enpresek, zeharka, lidergo eta berrikuntza estrategia bat hartzearen alde egiten dute merkatuari begira, hau da, bere lehiakideenak ez bezalako soluzioak sortzearen aldeko apustua egiten dute.

## 2. Nola ezartzen da alerta goiztiarren sistema bat?

Alerta goiztiarren sistema bat ezartzeko sistematika adimen lehiakorraren sistema bat ezartzeko sistematikaren antzekoa da. Zaintzaren faktore kritikoa definituz hasten da:




### 2. irudia: zaintzaren faktoreak

Ondoren, behar horiei erantzungo dieten informazio iturriak definitzen dira. Fase honetan kontu handiz ibili behar da, informazio iturri horiek jardueraren garapenaren faserik goiztiarrenei erantzun diezaioten. Halaber, kontuan hartu behar da zaintzaren faktore kritiko guztiek ez dituztela zertan bere informazio iturriak eduki.

Hurrengo fasean informazioaren azterketa eta dibulgazioa egiten da. Erabakiak hartzeko fasea fase desberdintzat hartu behar da, edo arreta berezia behar duen fasetzat.

Lehenago esan denez, informazio horren helburu nagusietakoa erabaki estrategikoagoak hartzea da, epe ertain-luzerako horizonte batekin. Horregatik, interesgarria izan ohi da enpresaren erabaki organoetan informazio hori modu egituratuan eta konexuan aurkeztea, plan estrategikoa edo produktu eta teknologia garatzeko plana elikatu ahal izan dezan.



**3. irudia: erabakiak hartzeko prozesua**